



cámara de álava
arabako **ganbera**

**ARABAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA ZERBITZUEN
GANBERAKO GOBERNU-ORGANOAK BERRITZEKO
HAUTESKUNDE-PROZESUA**

**OINARRIZKO INFORMAZIOA
HAUTESKUNDE-ERROLDA ERAKUSTEKO FASEA**

2021eKO URRIA

AURKIBIDEA

- 1. MERKATARITZA GANBERAK**
- 2. ARABAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA ZERBITZUEN GANBERAREN GOBERNU-ORGANOAK**
- 3. HAUTESKUNDE-PROZESUA**
- 4. ARAUDIA**
- 5. ARABAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA ZERBITZUEN GANBERAREN HAUTESKUNDE-ERROLDA**

ERANSKINAK

- HAUTESKUNDE-EGUTEGIA**
- KORPORAZIOKO ERROLDAREN EGITURA ATALKA, TALDEKA ETA KATEGORIAKA**

1.- MERKATARITZA GANBERAK

Merkataritza Ganberak, euren ibilbide luze eta oparoan, aise egiaztatu dute funtsezko elementua direla ekonomiaren sustapenean eta enpresen lehiakortasunaren hobekuntzan. Ganberen helbururik behinena merkataritzaren, industriaren, zerbitzuen eta nabigazioaren interes orokorren defentsa da eta, halaber, enpresei zerbitzuak eskaintzea, batez ere ete-ei eta mikroete-ei, horien lehengoratzeko ekonomikoan eta enpleguaren sorkuntzan laguntzearen ondoreetarako.

Legeak ezartzen du Ganberak zuzenbide publikoko korporazioak direla eta euren helburuak betetzeko nortasun juridiko osoa dutela. Halaber, Administrazio Publikoen kontsulta-organo moduan egituratuta daude, lortu nahi dituzten interes pribatuak gorabehera.

Enpresa guztiak Ganberen erroldan inskribatuta egongo dira eta, ondorioz, enpresa horiek izaera orokorreko zerbitzuetara irits daitezke eta Ganberen Gobernu-Organoetan parte har dezakete. Horrek ez die enpresei inolako obligazio ekonomikorik eragiten.

Ganberen jardueren finantzaketa ematen dituzten berariazko izaerako zerbitzuen prestazioaren, administrazio publikoekiko hitzarmenen eta enpresen borondatezko ekarpenen bidez gauzatzen da.

Ilido horretatik, Ganberak erakunde gardenak dira eta argi eta garbi sarreren eta gastuen kontrol-araubidea indartzen duten zaintza-mekanismoak dituzte.

Ganberen Gobernu-Organoak Osoko Bilkura, Batzorde Exekutiboa eta lehendakaria dira.

Osoko Bilkura Ganberen gobernuko eta eskuordetzako organo gorena da; gutxienez 10 kide edukiko ditu eta gehienez 60. Kide horien agintaldia lau urtekoa izango da.

Osoko Bilkurako kideen bi heren Ganberetako enpresa guztien eskuordeak izango dira, sektore ekonomiko guztietan duten ordezkartzearen arabera.

Halaber, Osoko Bilkuran Ganberaren esparruko bizitza ekonomikoan ospetsuak eta aintzatetsiak diren pertsonak daude; pertsona horiek adierazgarrienak diren sektore arteko eta lurraldeko enpresen-antolakuntzek eta borondatezko ekarpenik handienak egiten dituzten enpresetako eskuordeek proposatuta egoten dira.

2.- ARABAKO MERKATARITZA GANBERAKO GOBERNU-ORGANOAK.

Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganberaren kasuan Osoko Bilkurak hogeita hamasei (36) kide ditu, Talde hauetan banatuta daudenak:

- **A) TALDEA:** Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganberari atxikita dauden enpresa guztietako hogeira lau (24) eskuorde. Pertsona horiek sufragio aske, berdin, zuzen eta sekretuaren bidez hautatuko dira hautesleen artean. Hautesleak atalka, taldeka eta, hala denean, kategoriaka sailkatuta egongo dira.
- **B) TALDEA:** Ganberari dagokion esparruko bizitza ekonomikoan ospetsuak eta aintzatetsiak diren enpresetako bost (5) eskuorde. Pertsona horiek sektore-artean eta lurraldean adierazgarrienak diren antolakuntzek proposatuta (beti ere tutela egiten duen administrazioak horrelakotzat ezarrita daudenean) egongo dira.
- **C) TALDEA:** Ganberan borondatezko ekarpenik handiena egiten duten enpresetako zazpi (7) eskuorde.

Osoko Bilkurak lehendakaria hautatuko du bere kideen artean.

Batzorde Exekutiboak 10 kide izango ditu eta Osoko Bilkurak hautatuko du. Batzorde Exekutiboa Ganberaren kudeaketa, administrazio eta proposamen iraunkorreko organoa da.

3.- HAUTESKUNDE-PROZESUA

Merkataritza Ganberetako Osoko Bilkuretako kideak lau urterik behin berritzen dira. Hauteskunde-prozesuko funtsezko elementuak hauek dira:

1. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak hauteskunde-prozesuaren irekiera ezartzen du; prozesu hori Ministro- Aginduen bidez hasten da. 2021eko urriaren 5ean ITC/1074/2021 Agindua argitaratu zen, uztailaren 30ekoa, eta ezarri zuen hauteskunde-prozesua irekita zegoela 2021eko urriaren 7tik 2023ko azaroaren 15era arte.
2. Jarraian, irekiera gertatu eta bost egunera, jendaurrean erakusten da Ganberetako hauteskunde-errolda; errolda horretan hautesle guztiak daude. Beraz, erroldan daude enpresak, eskuordetuta dauden sektore guztien arabera duten garrantzi ekonomiko erlatiboa kontuan hartuta taldeka eta kategoriaka sailkatuta.
3. Hauteskunde-prozesuaren amaierarako ezarrita dagoen mugaeguna kontuan hartuta, tutela egiten duten administrazioek Merkataritza Ganberen hauteskundeak deitu beharko dituzte. Gure kasuan ardura hori Turismo eta Merkataritza Sailordetzari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza Ganberen hauteskunde-deialdiaren ebazpena ematea. Ebazpen hori hauteskunde-prozesu osoa 2023ko arazoaren 15a aurretik amaituta edukitzeko denbora nahikoarekin emango da.
4. Osoko Bilkurako A taldeko kideak sufragio aske, berdin, zuzen eta sekretuaren bidez hautatzen dira enpresa guztien artean.
5. B taldeko kideak tutela egiten duen administrazioak izendatzen dituen enpresa-antolakuntzek proposatzen dituzte. Izendatua enpresa-antolakuntza bakarra bada proposamen horrek izendapena eragingo du. Eta bi enpresa-antolakuntza edo gehiago izendatzen badira botazioa egingo da.
6. Azkenik, agintaldi bakoitzerako ekarpen ekonomikorik handiena egiten duten zazpi enpresak hautatuko dira.
7. Osoko Bilkurak Ganberako lehendakaria eta Batzorde Exekutiboa hautatzen ditu.

4.- ARAUDIA

Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganberaren Osoko Bilkura berritzeko hauteskunde-prozesua erregulatzen duen araudia honako hauetan dago ezarrita: apirilaren 1eko 4/2014 Legea, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialena (EAO, 2014ko apirilaren 2koa); maiatzaren 26ko 78/2015

Dekretua, Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialen hauteskunde-prozedura eta gobernu-organoak arautzekoa, (EHAA, 2015eko uztailaren 3koa); Korporazio honen Barne-Araubideko Arautegia eta Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza Sailordetzak egokia den unean emango duen Ebazpena.

5.- ARABAKO MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA ZERBITZUEN GANBERAREN HAUTESKUNDE-ERROLDA

Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganberaren hauteskunde-eroldaren barruan daude sartuta Arabako Lurralde Historikoan merkataritza, industria edo zerbitzuen arloetako jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak. Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganberako kideak izango dira zirkunskripzio horretan establezimenduak, ordezkariak edo agentziak badituzte.

Hauteskunde-eroldako hautesleak hiru ataletan sailkatuta daude, era honetan:

ATALAK	KIDEAK
INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA	14
MERKATARITZA ETA OSTALARITZA	4
ZERBITZUAK	6
GUZTIRA	24

Aldi berean, atalen barruan jarduera ekonomikoak eta kategoriak bereizten dira, talde horien garrantzi ekonomikoaren arabera. Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganberaren hauteskunde-eroldaren egitura **2. eranskinean** ematen dena da.

Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzuen Ganberaren hauteskunde-errola erakundearen egoitzan erakutsiko da, Eduardo Dato 38, Vitoria-Gasteiz, eta baita web orrian ere (www.camaradealava.com).

Errola erakusteko eta horretan sartzeko edo horretatik kanpo uzteko erreklamazioen epeak ezartzen dituen hauteskunde-egutegia **1. eranskinean** ematen da.

1. ZENBAKIA

GERTAERAK	Erreferentzia -data
HAUTESKUNDE-PROZESUAREN IREKIERA. ITC/1074/2021 Agindua, irailaren 30ekoa. Apirilaren 1eko 4/2014 Legearen 18. Artikulua. Ministerioak, AAEEK kontsultatu ondoren, hauteskunde-prozesuaren irekiera ezarriko du.	2021-10-07
HAUTESKUNDE-ERROLDAREN ERAKUSKETAREN HASIERA ETA ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEKO EPEA. Hauteskunde-prozesua ireki eta 5 egunetara (EJren 78/2015 Dekretuaren 13.1. artikulua).	2021-10-15
ERROLDA ERAKUSTEKO EPEAREN AMAIERA. Egutegiko 20 egun (EJren 78/2015 Dekretuaren 13.1. artikulua).	2021-11-04
GANBERAKO BATZORDE EXEKUTIBOAN ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEKO EPEAREN AMAIERA. Epea iraungi eta 10 egun bete arte (EJren 78/2015 Dekretuaren 13.1. artikulua).	2021-11-18
BATZORDE EXEKUTIBOAK ERREKLAMAZIOAK EBAZTEKO EPEAREN AMAIERA. 5 egun (EJren 78/2015 Dekretuaren 13.2. artikulua). Isiltasun positiboa.	2021-11-25
SAILORDETZAN ERREKLAMAZIOA AURKEZTEKO EPEAREN AMAIERA. 15 egun (EJren 78/2015 Dekretuaren 13.2. artikulua).	2021-12-21
Batzorde Exekutiboaren ebazpenen aurka SAILORDETZAN AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOEN EBAZPENEA. (EJren 78/2015 Dekretuaren 13.2. artikulua). 15 egun. Isiltasun negatiboa.	2022-01-12
SAILORDETZAK HAUTESKUNDEAK DEITZEA.	
HAUTESKUNDE-PROZESUAREN AMAIERA. (Irailaren 30eko ICT/1074/2021 Agindua)	2023-11-15

2. ZENBAKIA

INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA ATALA	14
TALDEAK	
1.- ENERGIA ETA URA (11-16) MINERAL EZ ENERGETIKOAK ATERATZEA ETA TRANSFORMATZEA ETA PRODUKTU ERATORRIAK. INDUSTRIA KIMIKOA (21 - 25). 1. kategoria 2. kategoria	2 1
2.- METALAK TRANSFORMATZEKO INDUSTRIA. DOITASUNEZKO MEKANIKA. (31-39) 1. kategoria 2. Kategoria	3 2
3.- BESTELAKO INDUSTRIA MANUFATUREROAK (41-49) 1. kategoria 2. Kategoria	2 2
4.- ERAIKUNTZA (50)	2
MERKATARITZA ETA OSTALARITZA	
TALDEAK	
5.- HANDIZKAKO MERKATARITZA (61)	1
6.- TXIKIZKAKO MERKATARITZA (62-66)	2
7.- ELIKADURA, OSTALARITZA ETA KONPONKETEN ARLOETAKO ZERBITZUAK (67-69)	1
ZERBITZUAK	
TALDEAK	
8.- GARRAIOAK ETA KOMUNIKAZIOA (72,75 eta 76)	1
9.- FINANTZA ERAKUNDEAK ETA ASEGURUAK (81-83)	1
10.- BESTE ZERBITZU BATZUK (84-99) 1. kategoria 2. kategoria	2 2
GUZTIRA	
24	